



Labrazako hiribildu babesturen ondoan jarriko dute parkea. PHOT.OIK

Babestuta, eta "babesik gabe"

Oingo Labraza kontzejuan eraikitzea den zentral eolikoari uko egin diote administrazio batzarreko ordezkariak Batzar Nagusietan. Apirilaren 15erako protesta eguna deitu dute herrian.

ANAKOZ AMENABAR

"Batzuei nahi dutena egin dezaten alfonbra gorria jarri bitartean, guretzat oztopoak baino ez daude alde guztietatik", salatu du Labrazako Administrazio Batzarreko ordezkari Begoña Martínez de Olkozek. Iberdrolak eta Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) osatutako Aixeiendar sozietateak 200 metroko zortzi aerosorgailu-

ko zentral eoliko bat eraikiko du Oingo Erdi Aroko hiribildu horretatik kilometro batera, hainbat sari jaso dituen harresi famatutik oso gertu, eta izango duen "inpaktu bortitza" geldiarazteko asmoz, erakundeetara jo dute babeseske. Joan den astean, Batzar Nagusietan izan ziren kontzejuko ordezkariak, EH Bilduk eta Elkarrekin Araba taldeek eskatuta.

Labrazako herriak, kontzeju irekian, bere lurretan halako industria eolikoa ezartzeari ezezkoa eman ziola gogoratu dio ALEAri Martínez de Olkozek, eta proiektu hori baimentzea "autonomia urratzea" dela. "Jendetsua izan zen bozketa batean %85k erabaki zuten ez zutela proiektu hori nahi. Horren berri eman genuen, baina ez digute jaramonik egin. Aldundiarentzat batzuetan soilik da garrantzitsua gure iritzia".

Oingo Udalak ere ez duela iritzirik eman nahi esan du kontzejuko ordezkariak, baina proiektua egin ahal izateko Aldundiak eta Jaurilaritzak eskatutako baimen guztiak "kexarik gabe" eman dituela. "Proiektuak Gorrebusto eta Labrazako kontzejuei eragiten dienez, eta desadostasuna ageriko denez, ez zuela erabakirik hartuko esan zuen, baina errealitateak bestelakoa erakutsi du".

Babestutako hiribildua

Kontzejuak duen babes-maila handia dela eta, Labrazako hiribilduak muga urbanistikoak, energetikoak eta sozio-ekonomikoak dituela nabarmendu du Martínez de Olkozek. "Nik neuk, adibidez, teilatuan plaka fotovoltaiko bat jartzea eskatu dut, eta ez didate baimenik eman. Harresitik kanpo bizi naiz, eta ez didate autokontsumorako aukerarik uzten. Aldiz, kilometro batera 200 metroko haize-errotak jarri behar dituzte. Hori ez al da itsusia?".

Gogoratu duenez, gaur egun herrian indarrean dagoen Birgaitze Integralerako Plan Bereziak eta Multzo Monumental kategoriarako kultura ondasun izendatzeak eraikuntza muga ugari jarri dizkie. Eta hainbat familia gaztek beste herri batera joan behar izan dute bizitzera, bi araudi horietako arau eta murrizketak direla eta. "Gaz-

teek ezin dute etxerik egin, hainbat oztopo dituzte, eta zenbaitek Meano, Gorrebusto edo Oionera joan behar izan dute. Batetik esutu, eta beste alde batetik eolikoei inolako baldintzarik jarri gabe? Nork ulertzen du hau?".

Azpiegitura hori Labrazan kokatzea, halaber, Lurraldearen Antolamenduaren Gidalerroekin ez datorrela bat azpimarratu du; gidalerro horiek aukera berrietan sakontzeko betebeharrak ikusten dute, hala nola elikagaien segurtasuna, ekosistema zerbitzuen zaintza, azpiegitura berdea, nekazaritza ekologikoa, teknologia berriak edota turismoa. "Labrazako herri ondoan dagoen zentral eoliko batek herriaren despopulazioa ekarriko luke, hori baita industria mota horiek duten eragin etako bat". Gertutik bizi dute Kodes mendilerroko zentral eo-

"BATZUEI ALFONBRA GORRIA JARRI BITARTEAN, GURETZAT OZTOPOAK BAINO EZ"

BEGOÑA MARTINEZ DE OLKOZ

likoa, Nafarroa eta Araba arteko mugan, eta ondorioak ere ondo ezagutzen dituzte, kontzejuko ordezkariak esan bezala: "Azuelon, Arasen edota Aguilar Kodesen ikusten ari gara; 2004tik %40 egin du behera biztanle kopuruak zonalde horretan, erronka demografikoan ez die onurarik ekarri, gure zerbitzu berdina dituzte, eta faktura gure moduan ordaintzen dute. Zein da onura?".

Erakundeetatik Labrazako herriarrei "entzunger" egin bitartean, beste hainbat eragileren

babes zabala dutela gogoratu du kontzejuko ordezkariak. Besteak beste, Errioxako Kontzeju Arautzailea eta Arabako Errioxako Upategien Elkarte (ABRA) proiektu eolikoaren kontra agertu dira, kezkatuta daudelako industria mota horrek zonaldean izango dezakeen eraginagatik, eta Mendiak Aske eta Araba Bizirik talde ekologisten babes ere izan dute.

Herritarrek herritik gertu proiektu eolikorik ez dutela nahi argi uzteko eta egoera ezagutzera emateko, mobilizazioak iragarri dituzte. Apirilaren 15ean, esaterako, mendi marmaxa egingo dute errotak paratu nahi dituzten lur sailera; aldarrikapenarekin batera, herri bazkaria eta musika ere ez dira faltako. "Ez gaituzte entzuten, baztertu egin gaituzte, baina ez dugu amore emango", gogoratu du Martínez de Olkozek.

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO FAMILIEN EGUNA. Martxoak 19, Durana
Info gehiago: arratzua-ubarrundia.eus